

jatorrizko testua 10. orrialdean

Egileak aztertu egiten ditu komunikazio sareek sortarazi dituzten gizarte harremanen formak, eta gauzatu daitekeen gizarte erabileran kokatzen du teknologia honen interesa, teknologian bertan baino gehiago. Sareko hiritartasun aktiboko proiektu adierazgarrietan zeharreko ibilbide historiko labur bat egiten du, eta galdera batzuk ere planteatzen komunikazio askatasunari, edukiak partekatzeo aukerari eta zelatan dauden interes komertzialei buruz.

S U S A N A N O G U E R O

Baldintzarik gabeko airea

Komunikazio sareek eta batez ere internetek aldatu egin dituzte gizartearen harreman, kontsumo eta kultur trukerako formak, komunitateen eta eztabaidaren garapena ahalbidetuz hain zuzen, posta zerrenda, foro eta datuak trukatzeko sistemen bidez¹.

Gaur egun interneten interesa teknologikoa baino gehiago soziala dela oinarri harturik, egoki dirudi bere erabilera sozialetako batzuk eta bere emaitzetako batzuk aztertzeak. Xede honen ildotik, hiru komunitate mota konplexuri buruz arituko gara, honakoak izango baitira: hiritar sareak, media independente bidezko eta kanpaina ekintzaileetarako sare taktikoak, eta haririk gabeko sare libreak, esfera hauetan harremanetan dauden edo lan egiten duten artisten proiektu batzuekin lotuko ditugunak.

Interneten erabilera sozialen barnean, proposamen hedatuenetako bat hiritar sareak edo community network delakoak dira. Esperientzia hauek, gehienbat hiritarren ekimenetatik abiatuak, komunitatearen luzapen gisa dihardute, auzo digital eta auzoarentzako zerbitzu-atari birtual baten antzera. Sarritan, gainera, ordenagailu-espazio fisiko bat hartzen dute, eta honetan "teknologia berrien" arloko oinarritzako prestakuntza lana egiten da, beste kultur zein hezkuntza mailako jarduera batzuekin batera².

Alabaina, hiritarrak internetera konektatu eta alfabetatzeaz haratago iritsi ezean, proposamen hauek ez dira egiaz eraginkorrak. Jakin badakigu konektibotasuna, berez eta besterik gabe, ez dela behar adinakoa hiri bizitzaren demokratizazio eraginkorrago baterako, zeren eta hiritarrek erabiltzaile izaten segitzen baitute, ez sare-gizartearen biztanle eta sortzaile. Haustura digital handia ez da bakarrik sarbidean gertatzen, baizik eta gizarte taldeek sarbide hori aprobetxatzeko duten moduan ere bai.

Hiri malgua

Suediako Karlskrona hiriaren kopia digital baten sorreratik abiatuta, 1998an Superflex³ kolektiboak Karlskrona2⁴ eraiki zuen modu digitalean. Hiritarrek (beraien gorabeheren kopia ere eginda daude) internet bidezko sarrera dute kopia berdin-berdin honetara. Hiritar birtualak elkartu egiten dira, eta hiria eta beronen funtzioak birdefinitzeko dihardute; horrenbestez, gizarte hierarkiak ere aldatuta eta berrituta geratuko dira. Honen paraleloan, Karlskrona2 Karlskronan bertan ikusi ahal izan zuten hiriko erdiko plazan eskainitako eskala handiko bideo proiektu baten bidez. Hemen hiritarrek aukera izan zuten espazio fisikoan elkartzeko, beren gorabeheren martxa segitzeko eta bi hiri mota horien arteko dibergentziak aztertzeko.

Proiektu honek abiapuntutzat duen ikerlanak tokiko sare gisa hartu du internet, komunikazio globalerako tresnatzat baino gehiago, eta emaitzak aztertu ditu, tokiko mailan beste estrategia zibil, urbanistiko eta komunikaziorako batzuk aurkitzeko. Karlskronako lege, ekonomi zein gizarte arauetatik libre, egoera berri honen bidez hiritarren berengan espazio fisiko publiko askatzeko ideiak sortzeko posibilitatea izan zen helburu nagusietako bat.

Hau kontuan hartu beharreko adibide bat da edozein hiritar sarerentzat, baldin eta Karlskronako hiritarrak internetera eta sarearen berezko partaidetza ereduarekin, zeharka bada ere, hurbiltzeko balio izan zuen proiektutzat ulertzen badugu.

Geure buruari galdetzen diogu zer gertatuko ote zatekeen simcity⁵ suerte hau Bartzelonako Poble Nou auzoari aplikatu baliote 22@⁶ planaren hirigintza proiektuak zekarrena abiarazi baino lehen. Zer gertatuko ote zatekeen plana eragindako auzotarren eskura jarri balute⁷, kaltetuak babestu eta ordezkatu, auzoko etxebizitza eta enpresa guztiak babestu, eta 22@ horretako hirigintza proiektuen eztabaidetan parte hartu nahi duen elkartearen eskura jarri balute?

Let's Squat the Air

Urtarrilaren 18an, Sevillan, hirigintza, ikus-entzunezko aisia eta media independenteak elkartu ziren ekintza esperimental batean. Ekintza honen produktorea Wewearbuildings-en hacktektura.net⁸ bulegoa izan zen, eta internet bidez konektatutako beste talde nazional zein nazioz kanpoko batzuek osatutako sare baten laguntza izan zuen. Konektatutako hirietatik emandako audio eta bideo proiektzioen bidez, Isla de la Cartujako AVEren geralekua eraldatzea zein horretaz jabetzea lortu zen; espazio hori, gaur egun, abandonatuta dago, eta bertara iristen AVE trenak Sevillako 92ko expoan zehar. Ekintza honek ikerkuntza kutsu handia zuen konektibotasun globalaren eta wireless sareen inguruan, baina ciberpunk fikziotik eta espazio publikoen erabilera alternatiboetatik ikusita. Edukiak mundu globalizatuko gatazka soziokulturaleran bildu ziren, eta azpiegitura osoa software librearen bidez kudeatu zen. Ahalegin bat izan zen, haririk gabeko sare libreen, streaming mediako lanabesen, eta traveller eta hacker arteko jarrera baten bidez espazio publikoa berrokupa eta birpolitiza daitekeen moduan inguruan⁹. Wewearbuildingsen tekno okupazio espontaneoren eta expo 92ren hondakin arkitektonikoki sofistikatuen aurrean, Poble Nou auzoko egoerara itzuliko gara 2004aren ostekoan, geure buruari galdea eginez ea zein erabilera eta deserabilera mota izango ote duten Forumerako eraikin handiek¹⁰.

Oroimen taktikoa

Community Memory¹¹ ezagutzen dugu hiritar sare-rako estreinako hurbilketa da; Kaliforniako Berkeleyn sortu zen, 70eko urteen hasiera aldean, kontrakulturaren esparruan. Seguruena, dena den, ez dugu hiritar sare bati buruz hitz egiterik izango, zehatz aritu nahi izanez gero behintzat, Cleveland Free Net¹² iritsi arte. Batera zein bestera izan, kontua da Community Memory izan zela teknologia ikuspegi sozialetik erabili zen lehenbiziko esperientzietako bat. Lee Felsenstein eta Efram Lipkin-ek ordenagailu txiki bati konektatutako terminal publikoek osatu saretxo bat antolatu zuten; honen bidez parte har zitekeen eztabaida foro batzuetan, beste hiritar batzuekiko elkarrekintzan jardun eta ezagutzak partekatzeke. Terminalak toki publikoetan kokatuta zeuden, hala nola liburutegi eta ikuztegietan, sarbide libre eta doakoa eskaintzen zuten (nahiz foro berriak sortzeak dolar bateko kostua izan), eta anonimatua halaber. Esperientzia goiztiar honetan nabarmentzekoa da Korea eta Vietnamgo gerretan hildakoen izenez datu-base bat sortu izana.

Community Memoryn ikusten dugu nola garai hartako "aktibismotik" teknologiaren erabilera sozial batera iritsi zen, komunikazio eta antolamendu modu berriak aurkituz, ordu arte ezarri gabe zeuden beste estrategia batzuekin batera. Gaur egun, digitalizazio, informatizazio eta globalizazio terminoen pean politika, kultura, ekonomia eta gizarte mailako gatazka pila bat dago, eta hauen guztien neurri eta irismena ez dira batera aurreikusgarriak. Desordena honen barruan, dagoeneko denbora pixka bat bada artikulazio eta ekintzarako forma politiko berri zenbaitez hornitutako aktibismo bat bere bidea egiten ari denetik.

Artista eta ekintzaile mediatikoen lankidetzatik sortutako aktibismo mota berri hauek hedatu eta autodefinitu joan dira media taktiko deituetan. Termino hau Amsterdamen sortu zen, eta zuzen-zuzenean lotzen zaio *Next 5 Minutes* hitzaldi zikloari. Andreas Broeckmanni egin elkarriketa batean, media taktiko edo medio estrategikoei buruz David Garciak dioskuz "erabiltzaile-lengoaia eraginkorrek sortzeko gaitasun honi buruz ari gara (bai lengoaia birtualak izan bai beste era batekoak izan), konpromisoa eragiten duten eta hedatzen diren lengoiaik baitira, ez besteren gainetik jarri eta exijitzen dutenak; izan ere, horixe da sortzaile estrategikoen ezaugarria. Posterrek, bideoek, muntaiek, horma irudiek, grafikoei eta telebista kanalek ez zuten soilik arte eta aktibismo huts gisa lortu arrakasta; urrunago joanez, arte gisa arrakasta izan zuten aktibismo eraginkorra transmititzen zutelako (...). Seguruena, terminoa bera irtenbide estrategiko bat da, izugarri baliagarri agertu den behin-behineko neurria dela erakutsi duen inprobisazio bat, algebrako X aldagaia bezalaxe¹³. Jarrera taktiko hauetan ikusten dugu funtsezkoa ez dela teknologia eta sarea aurreiritzirik gabe erabiltzea, baizik eta hauen funtzionamenduan inspirazioa bilatzea metodo berriak aurkitzeko eta lortu nahi diren helburuetara iristeko. Estrategia bera baita lanabesa.

No one is illegal, everyone is an expert

Inor ez da legez kanpoko 1997an ekintzaile, artista, argazkilaria eta zinema zuzendari batzuek argitaratutako Documenta Xen manifestu baten zati bat da. Honi buruz, Florian Schneider-ek aipatzen du "inor ez zela egiaz aditu bat, baina guztiok jakin-mina genuen, gure sinbologia politiko klasiko aberasteko eta hedatzeko: web orriak martxan jarri, posta elektronikoa, irriatik sarean, bideo trukea, ehunka partaide dituzten bideo-konferentziak edo baita manifestazioen emanaldia bera ere telefono mugikorrek erabiliz¹⁴". Manifestuak arrakasta izan zuen, eta honetatik aurrera kanpaina bat abiatu zen hainbat ekintza dezentralizatuz, Alemaniako hamarnaka tokiko saretan. Helburuetan, berriz, legez kanpoko etorkinak ezkutatu zein laguntzetik legez kanpoko inmigrazioari buruzko eztabaida publikoak eta deportazioen aurkako protestak antolatzera iritsi zitezkeen. 1998an, *Inor ez da legez kanpoko* saretik errefuxiatu eta inmigraenteen eskubideen aldeko Karabana antolatu zuten, eta Alemaniako hauteskundeetan garaian 40 hiri baino gehiago igaro zituen karabana horrek, "Botorik ez dugu, ahotsa bai, ordea" lelopean. Bigarren ekintza Alemania eta Polonia arteko mugako kanpaldi bat izan zen. Bigarren ekintza honetatik aurrera muga-sistemen aurkako kanpaldiak errepikatuz joan dira, gero eta zona eta talde gehiago inplikatu, gainera. Internet, telefono mugikor, posta eta elkartruke pertsonalaren bidez Europa osoan zeharreko eta Estatu Batuetako aldi bereko beste kanpaldi batzuekin konexioak egitea planteatu da, eta topaketa mota honetarako leloa "Hacking the Border" (Muga hackeatuz) izan da; azkenean, beste sare eta kanpaina paralelo bat bilakatu da¹⁵. Informazioaren teknologiak kanpainak globalizatzeke balio izan du; hurrengo pausoa lanabesak sortzea da. Florian Schneiderrek 2001ean Make World¹⁶ jaialdia antolatu zuen, eta Shu Lea Cheang-ekiko solasaldi batzuetan *No One is Illegal* baino estrategia "positiboago" bat abiaraztea erabaki zuten; horrelaxe hasi zen *Everyone is an Expert*¹⁷. Interneteko datu-base batetik abiatzen da hau, *The Expert Base* delakotik, hain zuzen; honek ahalegina egiten du inongo datu-base ofizial edo komertzialtan erregistratu gabeko jendearen trebetasunei buruzko informazioa biltzeko. Nolabait, *No One is Illegal* haren jarraipen logikoa da, zeren eta bai egoitza-baimenik ez dutelako, bai bazterketa pairatzen dutelako, bai sistemak lantzat hartzen ez dituen lanak egiten dituztelako (artisten kasua, esate baterako), lan merkatutik kanpo dauden talde hauei lana bilatzea baitu helburu¹⁸. Bestetik, "aditu" kontzeptua ere zalantzan jartzen du. ▶

► *Expert Base*-ri the *Expert Movil* gehitzen zaio, unitate mugikor bat berau, kanpainaren on line alderdia osatzen duena tokiko mailan. "Furgoneta aditu" hau gizarte foro, manifestazio eta ekintza-egoera zale da, postproduktzio gune bat du, baita satelite bidezko konexioa ere, dagoen tokitik bertatik emititu ahal izateko⁹.

Expert Base-k zein *Expert movil*-ek duten balio bakarra erabilera bera da, eta bere ideia open source eta open border-en oinarrituta dago. Open sourcek (oso kideua betiere software librearekin) ez du soilik programa baten sorburu-koderako sarbidea adierazten; kodearen banaketa eta aldaketa askea esan nahi du, eta aplikazio-eremu espezifiko batean erabiltzeko ez murriztea, ezta inor baztertzea ere kodea erabiltzeko zein koderako sarbidea izateko unean.

Zentzu honetan aplikatzen zaio, hain zuzen ere, open sourceren filosofia *Everyone is an expert*-i, ulerturik sortzen, partekatzen, aldatzen eta erabilerara eta pertsonen artean bidaiatzen duen informazioa dela kodea. Alabaina, open borderrek zuzen-zuzenean igortzen gaitu mota guztietako mugen hausturara, hala nola espazial, kultural zein lan-motei dagokienaren hausturara. Sare guztiek muga ideia haustera, limite ideia haustera jotzen dute; nahiz eta sare itxia izan, berez hedatzera eta beste sare batzuetara zabaltzen duten konexio puntuak bilatzera jotzen du sare orok.

Wireless sare libre honen sorrerak sare berri baten garapena ekarriko luke berarekin eta, batez ere, bere gestioen antolamendu berri bat.

Laborategi tekno-sozialak

Internet, sareen sarea, orain artean TCP-IP protokolo sortaren bidez definitzen zen, protokolo horietan sortu eta jendearen artean hedatu baitzuten; hurrengo urratsa weba sortzea izan zen. Baina gaur egun, Wireless teknologiatik²⁰ abiatuta haririk gabeko tokiko sareak eraiki daitezke, beste protokolo batzuetan eta webean oinarrituta, baina nahi izanez gero internetetik zeharo kanpo. Izan ere, wireless sare horiek aukera asko sortzen ari dira, bai hiritar sareen bigarren belaunaldiarentzat bai bere informazioa inolako hornitzailearen edo kontrolen mende egoteke libreki antolatu, banatu edo mantendu nahi duten komunitateentzat.

Wireless lankidetzaren kulturarekin eta software librearekin indar handiz nahaste hau sare hauek benetako laborategi tekno-sozial bihurtzea eragiten ari da, antza.

Gai honetako aitzindaria Estatu Batuetako Seattle hiriko Capitol Hill auzoan sortutako Seattlewireless.net komunitatea da. Komunitate hau da, oraindik, jende gehien duena eta funtzionalena dena, eta ez da kasualitatea bere egoiliarren artean asko eta asko izatea arlo teknikoetan lan egiten ari direnak; eta onura, funtzionalitate berek diotenez, ez da soilik hiritarrentzat izan, baizik eta baita enpresa eta telelaneko ekimenentzat ere.

European Consume.net komunitatea dugu, Londresen; honek software librea ere garatzen du, ordenagailu zaharrak erabiltzeko moduan jarri eta kostuak jaistearren. Sare hau berezia da, zeren eta berau bultzatzen ez baitziren soilik segurtasun arloko teknikariak eta sare gaitetako adituak aritu, baizik eta baita artista digitalak eta kultur ekintzaileak ere; eta hori ezagun geratzen da, gainera, sarearen erabilera eta edukietan. Horregatik, ez da harriztekoa FocusOnArt izeneko atal/azpikomunitate bat egotea.

Espainiar estatuan, wireless kolektiboen artean nabarmentzekoak dira Redlibre.net, Madridwireless.net edo Zaragozawireless.org, lan bikaina egiten ari baitira haririk gabeko sare libreak hedatzeko eta euskarria emateko.

Dena den, sekula ez da ahantzi behar gaur egun funtsean azpiegitura, sarearen topologia eraikitzen bideratuta dauden ahalegin hauen azken helburua sortutako komunitateak lotzea dela, eta sare global paralelo bat sortzea, interneten paraleloan alegia. Wireless sare libre honen sorrerak sare berri baten garapena ekarriko luke berarekin eta, batez ere, bere gestioen antolamendu berri bat, informazio jarioen gaineko erabateko domeinua duten telekomunikazio-multinazionalen kontrolerik at. Egiaz, interneten sorburura itzultze moduko bat izango litzateke, baina hiritarren ekimenterik abiatuta unibertsitateko esparru akademikoetatik izan beharrean.

Wireless is More...

Duela 70 urte, Estatu Batuetan izandako depresio handian zehar, sinbolo batzuk sortu zituzten; hauek, toki jakin batzuetatik hurbil kokatuta, jateko zerbitu lortzeko modua zegoen tokiei buruzko informazioa eskaintzen zuten. Gaur egun berriro heldu diote kalean seinaleak jartzeko ideia honi, interneterako wireless konexio bat dagoela aditzera emateko, eta marrazki horiek hiri askotan zehar hedatu dira dagoeneko²¹. Lotura honek batu egiten gaitu *Banquete*²² erakusketaren barnean Daniel García Andújar-ek Bartzelonako La Virreina Jauregirako zuen arte proiektuarekin. *Individual-citizen republic project* informazio espazio bat zen, sareko testuak eta interneterako doaneko sarrera zituen Linuxez hornitutako eta wireless bidez konektatutako ordenagailu batzuetatik. Espazio hau Banquetewireless lantegiaz osatzen zen, honetan Bcnwireless.net-ek lankidetzak eskaintzen baitzuen. Itxura batean, Ramblen parean kokatutako eraikinaren goialdean instalatu zuten antenak hiri osoari ematen zion estaldura, eta konexio hori askatzen zuen hiritarrentzat. Zer gertatu zen, ordea? Oso gutxi jabetu zirela, oso gutxi direlako oraingo ordenagailu eramangarri bat eta gainera wireless txartela dutenak; eta gutxi jakin izan zutela konfiguratzeko eta banda zabaleraren oturuntza ongi etorri horretara heltzen. Konexio oturuntza apartekoa pribilegiatu gutxi batzuei ematea, kasu honetan informazioaren pribilegiatu gutxi batzuei ematea, emaitza kontraesankorra da, inondik ere, wireless komunitateek ordezkatzen dutenari eta adierazi nahi dutenari begira. Pena da horrelako ezaugarriak dituen proiektu bati behar dinako probetxua sozialik ateratzea ez izana.

Sare libreen komunitateek bere helburu globala lortuz gero, edukien migrazioa gertatuko al litzateke sare berri horretarantz, bikoiztuz lehenik eta, hurrena, interneten agertzeari utziz? Honela, internetek irauko al luke HIPERmerkatu baten antzera? Horrela izanez gero, ez al litzateke gertatuko, gaur ez bada bihar, internet-saltoki-gune uestezko horrek dohain eskaintzea konexioa? Izan ere, zein erosleri interesatzen zaio denda batean sartu eta pixka bat begiratzeko ordaintzea? Araurik ba ote legoke sare libre honetan, eduki eta erabilera moten inguruan interneten gertatutakoa ez errepikatuko? Bakarrik software librea erabiltzea askatasun izatetik inposizio izatera igaro liteke? Hiritarrek prest al daude, ezagutza teknikoaz eta etikoaz, erabiltzaile izateari utzi eta sare libre bateko biztanle eta sortzaile bihurtzeko? Teknologiarene benetako erabilera soziala elkarrekin komunikatzeko eta informazioa partekatuzko libre izatea lortzea ote da, edo telefonia mugikorraren eslogan huts bat besterik ez ote? ❧

SUSANA NOGUERO arte elektronikoa eta media independenteen antolatzaile-komisarioa da. Irakaslea internet eta multimedia munduko hainbat masterretan Diseinuko Goi Eskolan eta Kataluniako Unibertsitate Politeknikoan. Tebistarako dokumentalen eta netradio proiektuen errealizadore independentea. Bartzelonan bizi da.

OHARRAK ETA ERREFERENTZIAK

1 Azken aldi honetako fenomeno sorta batek iritzi batera bildu gaitu, jarduera mota honen baliagarritasun eta eginkizunari buruzko hausnarketaren une erabakigarrian gauden iritzira alegia. Alde batetik, Usenet-eko albiste-talde tematiko guztien artiboako on line jarri dira, hau da, internet bidezko komunikazio pribatuaren historia osoa 1981az geroztik. Bestetik, Rhizome-k bere jarduerarako babes/finantzaketa sistema baten bila dabilela aurrean topatzen dituen zailtasunak ditugu, Aleph-en auto-itxieraren iragarpena, eta The thing artista sare osoa lege bidez ixteko mehatxua bideratu gabeko salaketa bat dela eta. On line krisialdi honen paraleloan, berriz, ikusten dugu hala eta guztiz ere jarduera hauek erreproduzitzen segitzen dutela, eta osatu egiten direla gainera espazio fisikoetan topaguneak sorraraziz, hala nola media lab, media lounge, biltzar, jardunaldi, jaialdi eta beste batzuk, free software eta sare libreen loraldian.

Usenet ▶ <http://groups.google.com>, <http://www2.webmagic.com/usenet.org>

Rhizome ▶ <http://www.rhizome.org>

Rhizome One Day Left digest ▶ <http://amsterdam.nettime.org/Lists-Archives/nettime-1-0301/msg00104.html>

Aleph ▶ <http://aleph-arts.org>

The thing ▶ <http://bbs.thing.net/>

The thing versus Dow kasuari buruz gehiago irakur daiteke R. Bosco eta S. Caldana-ren artikulu batean. ▶ <http://www.rtmk.com/more/articles/thingelpais.html>

2 Espainiar estatuko lehena. Tinnet.org, 1994an hasi zen Tarragonan. Katalunia nabarmendu egiten da, hiritar sare onak edukitzeagatik bereziki. Hauen artean azpimarratzekoa da Ravalnet.net, teknologia komunitarioaren zentro baten kontzeptua auzoko elkartearen hostingarenekin konbinatzen baitu.

3 <http://www.superflex.dk>

4 <http://www.superflex.dk/tools/supercity>

5 <http://www.sc4ever.com>

6 <http://www.bcn.es/22@bcn/cast/presentacion/index.html>

7 <http://www.forumperjudicats.com/hm/afectats/05abril2002.htm>

8 <http://www.hackitectura.net/puredata>

<http://www.wewearbuildings.cc>

<http://www.hackitectura.net>

9 Hacker arkitekturaren beste ekintza batzuk aurreikusita daude, Asturiaserako, datoen hilabeteetan aurrera eramateko: <http://www.hackitectura.net/corvera>, <http://www.hackitectura.net/ensidesa2050/temporal.htm>

10 Josep Lluís Mateo arkitektoa, *De les Glories al Besòs cambio urbano y espacio público en la metrópolis de Barcelona* taileraren Macbako jendaurreko saioetan eginko eztabaida batean (Ramon Parramon-ek eta Muntadasek zuzendu zuten tailerra), 2004ko kulturen Forumeko eraikin berriei buruz aritu zen, eta zehazki bere ardurapeko Konbentzio eraikinari buruz. Mateok zioen oso eraikin zaila zela, iragaitzako beste ez-toki bate, leihorik gabe diseinatu beharra ezarri ziotena eta, beraz, tokiko mailatik zeharo deskonektatua; eta zioenez, jakinmin handia zuen diplomaziarako hangar horrek izango zuen gizarte-erabilerraren inguruan, baina ezin zituen inolaz ere emaitzak aurreikusi.

11 <http://memex.org/community-memory.html>

<http://home.inreach.com/cisler/citizens.htm>

12 Cleveland Freenet 1999ko urrian itxi zen.

<http://amsterdam.nettime.org/Lists-Archives/nettime-1-9910/msg00013.html>

13 <http://www.contrast.org/borders/kein>

14 <http://www.ucm.es/info/adnrecal/libreria/textos/hack.htm>

15 <http://www.noborder.org/>

16 <http://www.make-world.org/>

17 <http://www.muenster.de/%7Euwz/expert/>

18 Hemen nolabait erlatibizatu egin nahi dugu proiektu taktikoen eraginkortasuna emigrazioaren gaiaren barnean. Jakin badakigu emigrante asko (batez ere Europako iparraldean) ia-ia autonomoak direla beren komunikazio eta lan-sare paraleloak sortzeko unean. Beraiek sortutako web orri berriek betetzen dute nazioz gaindiko komunitate bat eratzeko helburua, eta bide batez elkarri laguntzera bideratuta daude, kulturen arteko elkarriketa bultzatzera, edota, kanpainen kasuan, eraginkortasun global politikoa erraztera. Teknologia hauek (internet eta sakelako telefonoak) batez ere familiak eta lagunak elkarrekin komunikatzeko erabiltzen dira, noski, eta logikari jarraituz, norbaitek egoitzarik, lanik zein lege errekonozimendu finkorik ez duenean, negozio "informal" sorta bat sortzen laguntzen dute. Dena den, ikusten dugu emakume emigranteak sare hauek kanpo geratu ohi direla, eta uste dugu emakume horientzako proiektu taktiko zehatzak sortu beharko liratekeela.

19 Florian Schneider Bartzelonan egongo da *Expert movil*-ekin maiatza amaiera aldean. Besteak beste medien demokratizazioa eta buruontolaketa independenterako moduak jorratzen ari den *Media_space Invaders* tailer-mintegian parte hartzen ari da. Aurreikusitako jardueren artean, hainbat ekintzatarako deia egingo da *Everyone is an Expert* gaiaren baitan. <http://www.platoniq.net/invasores>

20 Haririk gabeko sareak 802.11b edo wi-fi protokoloan oinarritzen dira, eta funtzionamendua, modu sinplifikatuan esanda, honakoa dute: komunitatekideek nodoak eratzen dituzte beren etxeetan. Nodo bat sarrerako puntu bat (haririk gabeko konexiorako router moduko bat, nahiz linuxa eta wireless txartela dauzkan ordenagailu zahar bat ere izan daitekeen) eta seinalearen irabazia mantentzen duen antena bat da. Nodoren estaldura-eremu honetan badago beste nodo batzuekin konektatzeko aukera (horrelaxe sortzen da sarea), edota noizbehinkako bezeroak konektatzea; bezero hauek haririk gabeko konexiorako txartelaz hornitutako ordenagailu eramangarriak dauzkaten pertsonak izango lirateke. Hemen mugitzen ari garen frekuentzia-banda mikrouhin mailakoa da, 2.4 GHz, eta ez du inolako lege arazorik eragiten, zeren eta zabalik baitago era honetako gailuentzat. Izan ere, oraingoz banda esperimentalak dira, eta erabilera publikokoak.

21 <http://www.warchalking.org>

22 *Banquete_ metabolismo y comunicación* erakusketa,

<http://www.banquete.org/indexEspagnol.htm>